

JESUS ETA ANDRA PEKATARIA

1

Halako egun baten
eta desorduan,
andra bat agertu zan
Jesusen onduan.
Eta gizon pila bat
bere inguruan
bere aurka salatzen
berbeta beruan:

2

“Hau haragikerian
geuk dogu aurkitu,
eta mila harrikada
legean zor ditu.
Ez al dau hortarako
nahikoa meritu?
Hau beste modu baten
ezin errenditu”.

3

Jesus isilik eta
makurtuz lurrera,
hautsetan idazteko
hartu dau tankera.
Emakumea hortxe
lotsaz buruz behera,
salatariak, barriz,
harroxko jarrera.

4

“Ea gizonok, entzun,
erne belarria:
Pekatori ez danak
bota bei harria”.
Nonbait ikusi dabe
estutxo neurria,
ez andra ta ez harri,
ze lotsagorria!

5

“Andrea, ez al zaitu
inok kondenatu?”
- Inork ere ez, Jauna,
arren, Zuk parkatu!”
- “Ezta Nik ere, baina
ez egin pekatu!
Zoaz, bizi bakean
ta garbi jokatu”.

6

Gitxi asko izanik
danok pekatari,
zelan gara epaile
eta salatari?
Jaunak agertzen deusku
erruki ugari,
bardin izan daiogun
batak besteari.